


ZOZOMIKOTEREkin

JOLASEAN



HONA ZOZOMIKOTEREN ISTORIOAREN MARRAZKIAK ZUK ORDENA DITZAZUN



HARTZA: benetako historia bat

1735 urte inguruan, Aralar mendian eta elurte batean, Zaldibiako bi baserritar ehiztarik hartz handi bat hil zuten. Ehiztari haietako bat Ursugoena baserrian maizter bizi zen, hau da, Marques de Balmediano nagusiari hilero-hilero errenta ordaindu behar izaten zion.



Nagusiak harrapaketaren berri izan zuenean, maizterrari agindu zion hartzari larrurik kendu ez, eta Ordiziara gurdiarekin eramateko. Esan eta egin: bi ehiztariek idi pareak tiratuta eraman zuten hartza, oso-osorik, markesaren etxe atarira.

Goerritarrek albistearen berri izan zutenean jendetza bildu zen hartza ikustera, Santa Ana eguneko festara baino gehiago. Hartza altxagarriekin egokitu omen zuten, lau oinen gainean, bizirik balego bezalaxe, eta halaxe izan omen zuten jendea sakabanatu arte.


Orduan, barruko mami eta hezurak erabat kenduta, larrua lasto xehatuz bete eta jauregiko horma batean. Hartz handi haren larrua urteetan ikusi izan nuen neronek Balmediano jaunaren ezkaratzean, zintzilika zegoela, bere mustur, belarri, hanka, atzapar, atzeki eta gainerako zati guztiak berarekin zeuzkala. Gero desagertu egin zen handik, ez dakit nora eta zeren bidez. Eta hala ere ondotxo dakit, jakin, markesaren maizterrari harrezkero Markesa izengoitia jarri ziotela. Hari bakarrik ez, haren semeari, eta haren semeen semei ere hala esan izan zaie Zaldibian.

Juan Inazio Iztueta, *Gipuzkoako kondaira*



LAMIA: benetako ipuin bat

Aspaldi handian, errotari batek, lanean leher eginda, aberastu nahi izan zuen. Errekako lamia batek haren desioa entzun, eta aberats bihurtu zuen. Baina aberats izateaz ere aspertu, eta enperadore izatearekin egin zuen amets. Lamiak, orduan, enperadore bihurtu zuen. Baina enperadore izanda ere, uda mineko eguzkiak kalte eta enbarazu egiten ziola eta, eguzki izatea desiratu zuen. Eta, rau, lamiak eguzki bihurtu ere! Eguraldia aldatu zen, hodeiak etorri ziren, eta eguzki zen enperadore izandako errotari ohiak hodei izatea irrikatu zuen. Eta horra, lamiak eguzkia hodei bihurtua! Egun batez euria hasi zuen, eta errotariak errota ikusi zuen han, behe-behean, eta urak nola mugitzen zuen errotarria, eta gari eta artoirinak usaindu zituen, eta berriro ere errotari nahi izan zuen. Lamiak, orduan, barrez esan zion: ‘Gauza bat daukanak beste bat nahi du, eta zuk hasieran bezalaxe geratu nahi duzu orain’. Errotariak erantzun zion: ‘Arrazoi duzu, aurrerantzean ere halaxe jarraituko dugu, zuk lamia eta nik errotaria!’. Eta fini.



MARGOTU LAMIA ZURE ERARA





LOTU PERTSONAIAK ESALDI EGOKIAREKIN

Zozomikote
Hartza
Antzarak
Lamiak
Erlojua
Kaldereroak

Zeruan gezi bat osatuz igaro ziren.
Parte txarreko gizon bihurtzat dute ordiziarrek.
Neguan lo potzoloan egoten da.
'Konponi kaldera,arregla txokolatera' esaka etorri dira.
Gustura hartuko luke pelukeria.
Ezin da inoiz lokartu.

IKUSTEN AL DUZU ALDERIK
BI MARRAZKION ARTEAN?



TITIOTO edo umeen hizkera

Jakingo al zenuke umeei esaten zaizkien hitzak benetakoekin lotzen? Ba al dakizu gehiago esaten?

Arrautza

Ura

Ogia

Paseo

Haragia

Musu

Mina

Eseri

Haragia

Txitxi

Pa

Mama

Apatx

Papa

Pupu


Txitxi

Apapa

Koko

ZEIN ANIMALIA OTE?

Lotu zenbakiak eta ea zer ateratzen zaizun!



MARRAZTU ETA MARGOTU ZURE ZOZOMIKOTE

Hona hemen Zozomikote lapurra, antzara besapean daramala. Goitik ageri da, eta atzealdetik. Marraztu zurea aurrez aurre bazenu bezala...



IPUINA BIRSORTZEN

1. Badugu Zozomikoteren lapurreten berri, baina bururatzen al zaizu haren beste sekreturen bat? Zer gustatzen zaion, bereziki zer lapurtu nahi izaten duen, edota zer lapurtu zuen inork jakin gabe...?
2. Ausartuko al zinateke Zozomikoteri beste bukaera bat ematen?

ANIMALIAK ETA GIZAKIAK



1. Zozomikote du izena gure protagonistak, eta bere izenean animalia baten izena ageri da, igeri ez, eta hegan egiten duena... Zein da? (Zozoa)

2. Batzuetan animalien izenak erabili izan dira pertsonen nortasuna adierazteko. Lotu antzeko esanahia dutenak:

Zozoa

Zakurra

Zerria

Astoa

Maltzur


Astakiloa

Zikina

Motela

3. Zozomikoteri buruz, kanpoederra dela ikusi dugu. Zein ote da 'Kanpoan uso, etxean otso' esaera zaharraren esanahia?

4. Adierazi dugun bezala, esaera zaharra esan dugu. Gauza izango al zinateke esanahi horrexekin esaera berri bat asmatzeko? (Kanpoan aberatsa, etxean traketsa).



EGURALDIA ETA DENBORA

1. Zure ustez, ba al dago alderik bi izen hauen artean?
2. Ipuinean, erlojugile ordiziarren izenak ageri dira? Ezagutzen al duzu gaur egungo baten bat?
3. Hartzaren historia zaldibiar bati irakurri diogu, baina ezagutzen al duzu eguraldi kontuetan jakitunen bat... beharbada Amezketan jaio eta Arantzazun bizileku izan duena? (Pello Zabala)



4. Denbora neurtzeko erlojua dugu tresna egokia, baina eguraldia oraindik ere ezin behar bezala neurtu eta asmatu, ezin ziurtasun osoz antzeman. Galdetu etxean ea gogoratzen diren Itsasondoko eta Ordiziako hainbat eta hainbat teilatu, baratze eta auto txapa mailatu eta kolpatu zuen kazkabar edo harri erauntsia?
5. Hala ere, esan bezala, batez ere gizakiok lurrari lotuago bizi izan ginen garaietan, beti egon da eguraldiari antzemateko beharra eta gogoia. *Zotal egunak*, adibidez, urteko lehen hamabi egunei esaten zaie: egun horietan zer eguraldi egingo, halakoxe eguraldi egingo du dagokion hilabetean; urtarrilaren 1ean elurra eginez gero, elur giroa nagusituko da urtarrilean edo ilbeltzan; otsailaren bi euritsua izanez gero, euria ekarriko du hilabete osoan... Eta zuk, ba al dakizu *tenporak** zer diren? Ezagutzen al duzu *Zozomikote* hitzaren benetako esanahia?

*Zotal egunen antzekoak dira. Lau urtaroetan, aste bat aukeratu, eta horretan zer eguraldi egiten duen, halakoxea egingo du hurrengo hilabeteetan.

* Esaera da: 'Zozomikote egunak, tristeak eta ilunak'. Berez, martxoko azkenak eta apirilko lehenengoak dira.

KANTU SEKRETUA...

1. Patxi Zubizarretak idatzita eta Aitor Furundarenaren musikarekin ezagutzen dugu Zozomikoteren kantua. Baina txori txiki batek esan digu, oinarri-oinarrian, Zaldibia aldean entzundako kantu hau dagoela. Ez zaizu askorik kostatuko kantuan hastea, ezta?

Joxe Martin badoala mendira,
Ria ria kataplan badoala mendira.
Eta bidean klabelinak hartu ditu,
Ria ria kataplan klabelinak hartu ditu.
Erreka bazterrean topatu du lamia,
Ria ria kataplan topatu du lamia.
Oh, gaztetxo, emaidazu lore bat,
Ria ria kataplan emaidazu lore bat.
Emango dizut nirekin ezkonduz gero,
Ria ria kataplan nirekin ezkonduz gero.
Ezkondu ziren eta Txinan bizi dira,
Ria ria kataplan eta Txinan bizi dira.

2. Eta zuk, protagonistak eta tokiak aldatuta, asmatuko al zenuke antzeko kanturen bat?



LOTU SINONIMOAK

Ipuinean agertzen diren zenbait hitz topatuko duzu hemen. Lotu antzeko esanahia dutenekin:

Barrabaskeria ⁽¹⁾

Gautxoria ⁽²⁾

Xarmanta ⁽³⁾

Berriketa ⁽⁴⁾

Madarikazioa ⁽⁵⁾

Isatsa ⁽⁶⁾

Txikizioa ⁽⁷⁾

Tentepotente ⁽⁸⁾

Dotore ⁽⁹⁾

Txoratu ⁽¹⁰⁾

Eskuluzea ⁽¹¹⁾

Arlotea ⁽¹²⁾

Lorea ⁽¹³⁾

Polita ⁽³⁾

Baldarra ⁽¹²⁾

Lausengua ⁽¹³⁾

Maitemindu ⁽¹⁰⁾

Lapurra ⁽¹¹⁾

Gaiztakeria ⁽¹⁾

Apaina ⁽⁹⁾

Buztana ⁽⁶⁾

Biraoa ⁽⁵⁾

Parrandazalea ⁽²⁾

Hondamendia ⁽⁷⁾

Hizketa ⁽⁴⁾

Harroputza



ZENBAKIEN KANTUA

BAT, Martin parrat.

BI, Martin ipurdi.

HIRU, kolkoa bete diru.

LAU, xaguxarrak jango al hau?

BOST, lukainkari kosk.

SEI, sillan esei.

ZAZPI, Amabirjina jantzi.

ZORTZI, Amabirjina erantzi.

BEDERATZI, ikulura joan eta behia jetzi.

HAMAR, katuak mar-mar.

HAMAICA, plateran lukainka.

HAMABI, plateran bi begi.

HAMAHIRU, aitonak amona nahi du.



KALDEREROEN ERREPIKA

Gure etxeetan kantatu izan den abestia oinarri hartuta, hona Patxi Zubizarretak sortu duen aldaera edo errepika:

BAT, kaldereroak parrat.
BI, kaldereroak azti.
HIRU, ez jauregi ez diru.
LAU, ze musika klase da hau?
BOST, zorionari kosk.
SEI, zure zeruan esei.
ZAZPI, kapela det jantzi.
ZORTZI, lotsa erantzi.
BEDERATZI, Hungarian naiz etzi.
HAMAR, zoritxarrak mar-mar.
HAMAIIKA, lapikoak kriskitinka.
HAMABI, mundua degu kabi.
HAMAHIRU, kaldereroak festa nahi du.

Ausartuko al zara zurea egiten?

ZOZOMIKOTEREN AURPEGIA

Hemen daukazu gure protagonista bihurria, zuk nahi duzun aurpegia jar diezaiozun: alproja, maitemindua, lapurra...



ZOZOMIKOTEREN MASKARA

Osatu zure maskara eta, ahal baduzu, luzatu iezaiozu kapela.

